

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

TALDE ERAGILEAREN AKTA:

Eguna: 2021-05-10

Ordua: 18:00-20:30

Lekua: Tolosako Kultur-etxeko Topagunea

Partaideak:

PARTE-HARTZAILEAK

Tolosaldeko emakume-elkarteetako, eragile feministetako nahiz norbanako gisa parte hartzen duten emakumeak. Guztira 25 emakume.

Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria

Elhuyarreko teknikariak (2 teknikari)

Gai zerrenda:

1. SARRERA

Tolosako alkateak harrera egin die parte-hartzaileei. Udalak Tolosaldeko Emakumeen Etxea sortzeko prozesuaren 2. fasea abiatzeko konpromisoa hartu duela jakinarazi du.

Ondoren, bilera girotzeko ariketa egin dugu. **“Nola zatoz gaurko bilerara eta zergatik?”** galdera luzatu dugu, eta erantzun hauek jaso ditugu:

- Ni nator galduta, denbora asko pasa delako azkeneko bilera egin genuenetik.
- Ni nator lanerako gogoekin, proiektu hau axola zaidalako.
- Gogotsu.
- Proiektua zertan den jakiteko gogoarekin.
- Ilusioarekin, lanean jarraitzeko prest.
- Deskonektatuta, baina aldi berean gogotsu.
- Pozik, aspaldi ikusi gabeko jendea ikusteagatik.
- Interesarekin, proiektuan lanean jarraitzeko.
- Lasai, egin diren urratsak ezagutzeko gogoarekin.
- Berriz martxan jartzeko gogoarekin.
- Ondo, berriz hasten bezala baina aldi berean jarraipen bat ematera.
- Indarberrituta.
- Ahaztuta non geratu ginen, baina pozik, berriz martxan jartzen garelako.
- Gogoekin berriz hasteko, eta hasi baino, bukatzeko.
- Eraikina edukiz betetzeko prest.
- Proiektuan bustitzeko prest.
- Gogotsu, lan egiteko gogoarekin.
- Bultzada emateko indarrarekin.
- Ondo, pozik denok ikustearekin.
- Pozik deialdiak edukitako arrakastarekin.
- Etxea prest edukitzeko gogoarekin.
- Talde honen parte izateko gogoarekin.
- Kuriositatearekin, egitasmoaren berri jasotzeko.

Ondoren, gaurko **bileran landuko ditugun gaiak** aurkeztu ditugu.

2.- PROZESUAREN 1. FASEAN EGINDAKO LANA GOGORATU

Tolosaldeko Emakumeen Etxea sortzeko prozesuaren **1. fasean egindako lanketaren emaitza nagusia** aurkeztu dugu PPT aurkezpenaren bidez; besteak beste, Etxearen helburuak, printzipio gidariak eta jarduerak aurkeztu ditugu.

Galderak egiteko tarteak utzi dugu, baina ez denez egon, bilerarekin aurrera jarraitu dugu.

***Oharra:** Ikusi aktarekin batera bidalitako aurkezpen-dokumentua.

3.- IKASTURTE HONETAKO PLANTEAMENDUA AURKEZTU ETA KONTRASTATU

Prozesuaren **2. fasearen planteamendua aurkeztu** dugu: helburuak, lanerako guneak, horien dinamika eta landu asmo ditugun gaiak azaldu ditugu.

Ondoren, zalantzak argitzeko tarteak zabaldu dugu, eta **argipen hauek** egin ditugu:

- **Talde Eragilearen dinamikari dagokionez**, bilerak bi hilean behin egitea aurreikusi dugu, bilera batetik besterako denbora-tartean lanketak egin ahal izateko (adibidez, Etxearen elkartearen sortzeko kudeaketa-lanak), eta partaideei lan-karga handiegia ez suposatzen.

- **Giza baliabideei dagokienez**, eta Etxea dinamizatzeko, dinamizatzailerak lanaldi osoz aritzea eta berdintasun-teknikaria lanaldi erdiz aritzea aurreikusten da. Aipatu da komenigarria izan daitekeela 2. fase honen bukaerarako dinamizatzailerak kontratatuta edukitzea.

4.- OBREN NONDIK NORAKOAK PARTEKATU

Tolosako Udalak **Rehark Estudioari esleitu dio Emakumeen Etxearen exekuzio-proiektua** idaztea. Bertako arkitektoa den Argik bileran Zoom bidez hartu du parte, eta proiektuaren nondik norakoak azaldu ditu, eta egindako aldaketa esanguratsuenen berri eman du:

- **Komuna tokiz aldatzea** aurreikusten dutela azaldu du, bizilagun batzuek ez dutelako baimenik eman komunaren ebakuazio-hodietan garajetik igarotzeko; eta horrek areto nagusiaren tamaina pixka bat murriztea dakar (denbora 60-70 eserleku inguru egongo lirake).

- Gainera, **zerbitzu-gelak eta bulegoak ere lekuz aldatzea** aurreikusi dute, Etxearen sarrerak kalearekin lotura handiagoa edukitzeko, eta bulegoak pribatutasun handiagoa izan dezaten.

Hurrengo urratsei dagokienez, ekainaren erdialderako eraikin osoaren exekuzio-obra egiteko proiektua aurkeztu behar dute (gerta liteke azken proiektuan aldatetaxoren bat sartzea), eta jarraian obren esleipena etorriko litzateke.

***Oharra:** Ikusi aktarekin batera bidalitako arkitektoaren aurkezpen-dokumentua.

Azalpenak eman eta gero, ekarpenak jasotzeko aukera utzi dugu, eta ekarpen hauek egon dira:

- Komenigarria izan daiteke **Etxearen gelaren bat** (areto nagusia ez bada, atzealdeko gela handiena) **intsonorizatzea**, batukada feministak entseatu ahal izateko nahiz Etxean bestelako jarduerak (kontzertuak, ospakizun-festa bat...) antolatu ahal izateko. Argik aipatu du teknikoki hainbat egokitzapen egin beharko lirakekeela gela akustikoki erabat intsonorizatzeko; ekonomikoki ere inbertsio handiagoa egitea esan nahiko lukeela; eta gelaren erabilera asko baldintzatuko litzatekeela. Dena den, aztertuko dituzte horretarako dauden aukerak.

- **Etxearen kristalei dagokienez**, aurreikusita dago kristalak ez hain gardenak izatea, barnealdeak intimitate gehixeago edukitzeko.

- **Etxearen aireztapen-sistema** oraindik zehazteko dago, exekuzio-proiektuan egingo da.

5.- ETXEAREN KUDEAKETA-EREDUA AURKEZTU ETA KONTRASTATU

Berdintasun Sailak landutako **Emakumeen Etxearen kudeaketa-ereduaren proposamena aurkeztu** dugu, eta argipen hauek egin ditugu:

- **Tolosaldeko emakumeen elkarteez** ari garenean, berdintasuna helburu duten elkarteez ari gara. Koyukó eta AnaYurd elkarteak izan daitezke adibide batzuk, kasu honetan Tolosakoak.

- **Koordinazio-guneari dagokionez**, osaera parekidea proposatzean esan nahi dugu ordezkari politikoaren eta emakumeen ordezkariaren arteko erlazioa izango dela.

Behin zalantzak argituta, **talde txikietan lanketa** egin dugu. Zerbaiten teknika erabiliz 5 talde osatu ditugu, eta ekarpenak jasotzeko 3 galdera hauek egin ditugu:

- Zer nabarmenduko zenukete positiboki?
- Zerk sortzen dizue zalantza?
- Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?

Ondoren, **talde handian partekatu** dugu landutakoa:

1. Taldea

- **Zer nabarmenduko zenukete positiboki?**

Proposamen orekatua eta errealista dela.

- **Zerk sortzen dizue zalantza?**

Etxearen elkartea nola sortu (Tolosaldeko emakume-elkarte guztien artean egingo dugu?) eta udalen arteko adostasunak edo baliabideak jartzerakoan egon daitezkeen zailtasunak.

- **Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?**

Prozesua egiteak berak.

2. Taldea

- **Zer nabarmenduko zenukete positiboki?**

Oso garbi dago jasota gune bakoitzaren partaidetza nolakoa izango den; proposamena ondo egituratuta dago.

- **Zerk sortzen dizue zalantza?**

Nola gauzatuko dugu emakumeen partaidetza? Nola helaraziko diegu Tolosaldeko emakumeei hemen landutakoa? Komunikazioa gakoa izango da.

- **Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?**

Dagoeneko sortuta dauden beste Emakumeen Etxe batzuen ereduak aztertzeak.

3. Taldea

- **Zer nabarmenduko zenukete positiboki?**

- Talde bakoitzak bere funtzioak argi zehaztuta ditu.
- Emakumeei erabakitze gaitasuna eskaintzen die.
- Garrantzitsua iruditzen zaigu kontsentsuaren ikuspegiarekin aritzea.

- **Zerk sortzen dizue zalantza?**

- Hasiera da, ibilian ikusten joango gara nola doazen gauzak.

- Eskualde-mailako funtzionamendua berria izango da, konpromiso-maila altua eskatuko du, eta koordinazio-bileretan partaidetza egonkorra lantzea garrantzitsua izango da.
- Dinamizatzailearen lan-baldintzak egonkorak izatea oso garrantzitsua izango da.
 - **Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?**
- Denborak eta malgutasunak, prozesu bat delako.
- Antolamenduak, planifikazioak, egitasmoa garatzeko laguntza teknikoa izateak.

4. Taldea

→ **Zer nabarmenduko zenukete positiboki?**

Erabakiguneetan dagoen indar-banaketa orekatua, hainbeste lan kostatzen ondoren.

→ **Zerk sortzen dizue zalantza?**

Elkarrearen osaera eta funtzioak zeintzuk izango dira? Mugimendu feministak indar nahikoa edukiko du?

→ **Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?**

Prozesua bera elkarrekin egiten joateak.

5. Taldea

→ **Zer nabarmenduko zenukete positiboki?**

- Emakume-sareak elikatzen lagunduko duela.

- Erabakigunea Talde Eragilean jartzea.

- Koordinazio-gunearen osaera parekidea izatea.

→ **Zerk sortzen dizue zalantza?**

- Koordinazio-gunearen osaerari dagokionez, udal-langileak non sartuko liriateke? Ez da aurreikusten lanerako gunerik Udaleko ordezkariak gabe.

- Lantaldeen funtzionamendua hasieratik ondo zehaztea garrantzitsua iruditzen zaigu.

→ **Zerk lagundu dezake zalantza horiek argitzen?**

- Kudeaketa-eredua lantzeko denbora gehiago edukitzeak.

Egin diren ekarpenak kontuan hartuta, eta zalantzak zalantza, **aurrera egitea ahalbidetzen digun proposamena dela adostu** dugu. Halere, eragileetan proposamena gehiago aztertzeke aukera egongo da, eta Talde Eragilearen hurrengo bileran, beharrezkoa bada, tarte bat eskainiko diogu kudeaketa-ereduari egon daitezkeen balizko ekarpenak jasotzeko.





6. BILERAREN ITXIERA

- **Komunikazio-planaren berri** eman diegu:
 - Prozesua hasi dugula jakinarazteko **prentsaurrekoa** egin genuen joan den ostegunean.
 - Tolosako Udaleko **webgunean Emakumeen Etxeari buruzko atala** sortuko da, bertan egongo dira ikusgai aktak, deialdiak eta informazio guztia. Tolosaldeko udalek atalaren lotura jarriko dute euren webguneetan. Ondo ikusi da proposatutakoa. Talde Eragilearen aktak zintzilikatuko dira alde zurretik Talde Eragileko partaideei ekarpenak egiteko aukera eman eta gero.
- **Lantalde Politiko Teknikoaren ordezkariak dagokionez**, Silvana eta Eli ari dira joaten, baina eskualdeko beste taldeetatik ere pare bat ordezkari joateko aukera zabaldu dugu. Nekane Zubizarretari proposatuko diogu bileretan parte hartzeko, eta proposamen gehiago egiteko aukera ere emango dugu.
- **Bilera baloratzeko** balorazio-orriak banatu ditugu, eta 1. Fasean erabilitako balorazio-aldagai berak mantendu ditugu, aldagai gehiago proposatzeko aukera emanez. Hauek dira jasotako balorazioak 1-5 eskalan, 1= oso txarra eta 5= oso ona dela aintzat hartuta:

BALORAZIO-ALDAGAIA	BATEZ BESTEKO PUNTUAZIOA (1-5)
Emankorra	4,1
Gardena	4,5
Konfiantzan oinarritutakoa	4,3
Hezteko eta garatzeko balio duena	4,3
Harreman horizontaletan/ahizpatasunean oinarritutakoa	4,3
Parte-hartzailea	4,4
Baliabide teknikoak	2

- **Zerk sentiarazi zaitu ongi?**

- Dena oso ondo landuta aurkeztu digutela, eta arin joan dela.
- Gardentasunak eta abiatzeak.
- Parte-hartzeak.

- Parte hartzeko aukerak.
- Proiektu polita aurrera doala gero eta garbiago ikusteak.
- Orokorrean ondo sentitu naiz.
- Berriz lanera bueltatzeak.
- Emakume-kopuru asko izateak.
- Emakume pila bat gerturatzeak.
 - **Ezerk sentiarazi zaitu deseroso?**
 - Berriz izatearen ezjakintasunak.
 - Kudeaketa-eredua lantzeko denbora gutxi.
 - Gauzak ahaztuta edukitzea eta batzuetan galduta sentitzea.
 - Teknikariaren erantzun batzuk kontuan hartuta, harreman horizontala ia ezinezkoa da.
 - Informazio gehiegi igual lehenengo bilera izateko.
 - Denbora motz. Gauza potoloak jarri dira mahai gainean: obrak eta kudeaketa. Gaur bietako bati helduta nahiko.
- Talde Eragilearen hurrengo bilera uztailaren 14an izango da, arratsaldeko 18:00etan.

Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA	DATA
Etxearen obrei dagokienez, atzealdeko gelaren bat intsonorizatzeko aukera aztertzea.	Rehark/Udala	Maiatza
Kudeaketa-ereduari balizko ekarpenak egitea.	Talde Eragileko partaideak	Ekainak 28
Lantalde Politiko Teknikorako eskualdeko ordezkariak (gehienez 2) proposatzea.	Talde Eragileko partaideak	Maiatzak 21

